

## **Merkataritza Justua, sustrai lokalak dituen mugimendu globala**

### **Giorgio Dal Fiume – WFTO-Europa-ko Presidentea**

50 urteko ibilbidea eta gero, Merkataritza Justua, urtetik urtera mundu osoan dagoen mugimendu global gisa indarra hartzen jarraitzen du, Zeelanda berrik, Japoniara, Iparramerikatik, Europara, eta nola ez, Asiatik Afrikara eta Amerika Latindarrera. Eragile eta ekimen desberdinak eta beti zaila den koherentzia indartzea bilatzen duen barne elkarriketa biltzen dituen mugimendua da (ekoizleen erakundeak, inportatzaileak, banatzaileak eta azken salmenta), egunero kontaktu eta harreman berriak hedatuz eta finkatuz. Eta, garrantzitsuena, egunero eragin positiboak areagotzea bilatzen duena, bere merkaturak handiagotuz, honen bereizgarri diren irizpide eta helburuen koherentzia indartsua galdu gabe. “Merkataritza Justuaren ekoizleentzako eta erakundeentzako merkatu gehiago irabaztera” mugatzen ez diren helburuak bilatuz, baizik eta aldaketa sozial sakona lortzea nahi dutenak, bai ekoizpenari dagokionez bai kontsumoari dagokionez, merkataritza egitea, negozioak egitea eta irabaziak lortzea posible dela pertsonak eta ingurugiroa esplotatzeko beharrik gabe.

Baina hain hedatuta eta artikulatuta dagoen mugimendu batek, enpresa munduarekin eguneroko kontaktua duena, administrazio publikoekin, mass media-rekin edo kontsumitzaileekin jarraian zehazten ditugun bezalako galderei erantzuteko gai izan beharko luke: nork hitz egiten du Merkataritza Justuaren izenean? Nork ordezkutzen du? Merkataritza Justua izan al daiteke krisi ekonomiko garaietan erantzun bat edo “osagarri on” bat besterik ez da onura garaietarako? Hauek guztiak Merkataritza Justuaren mugimenduaren barruan dauden galderak dira eta geroz eta gehiago planteatzen dira.

Merkataritza Justuaren helburua, barne arazo nagusiei konponbideak aurkitzea da: ziurtagiriak, loturak ekonomia sozial eta solidarioarekin, artisautzaren merkatua hedatzea, etab. Hau guztia Europan eta mendebaldeko herrialdeetan bereziki, nazioarteko krisi ekonomikoa Merkataritza Justuarekin lanean diharduten zenbait erakundetan arazoak sortzen ari den testuinguru batean eta, hauetatik habiatuz, mugimenduari ere, orokorrean. Eta, hala ere, nire iritziz, Merkataritza Justuaren mugimendu globala azken hamarkadan lortu duenaz harro egon daiteke eta ez arrazoi ekonomikoengatik bakarrik.

Alde batetik, eta Bigarren Mundu Gerratik gertatutako krisi ekonomiko latzenean murgilduta gauden arren (mendebaldeko herrialdeentzako), Merkataritza Justuak joera hazkorra mantentzen jarraitzen du, mundu mailan 2009 eta 2010 bitartean %15eko salmenten hazkundearekin. Bestalde, mugimendua geroz eta aktiboago dago sareko lanari, auto-erregulazioari eta estatu, eskualde eta mundu mailan sektorearen babesari dagokionez. Hau da Merkataritza Justuaren Estatuko Koordinatzailearen (CECJ) eta antzerako beste plataforma batzuen kasua, baita, mundu mailan, Merkataritza Justuaren Munduko Erakundearena (WFTO),

egun Merkataritza Justuaren izenean hitz egiteko gai den sare global bakarra, hau osatzen duten eragilean aniztasunetik habiatuta (ekoizleak, inportatzaileak, dendak).

Erakunde hauek osatzen dute Merkataritza Justuaren benetako ahotsa eta mugimenduari nolabaiteko estrategia orientazioa emateko gai dira hau karakterizatzen duten konplexutasunetik abiatuta. Adibidez, kontsumitzaile eta erakundearen aldetik Merkataritza Justuarekiko konfiantza areagotzeko beharraren aurrean, plataforma eta sare hauek, beren esfortzu gehiena Merkataritza Justuaren eta politikaren, hezkuntzaren eta erakundearen esparruetako harremanak sustatzen egiten duten beren lan handiena. Ikuspuntu estrategikoa honek sareko lana eta plataforma hauen ezaugarri diren beste esparru eta eragileekin lankidetzan, hauen artean CECJ, nire iritziz, urteko txosten hau irakurtzeko motibazio nagusia suposatzen du. Hots, Espainiako Merkataritza Justuaren argitalpen erakusgarriena, bere errealitateari eta jardura nagusiei dagokionez.

Mugimendua finkatzera hamarkada ugari eskaini eta gero, eta Merkataritza Justua ez dela amets bat erakustera, baizik eta mundu hobeago bat lortzeko alternatiba bat. Unibertsitateek egindako eta komunikabideek hedatutako ikerketa independente desberdinak burutu eta gero (“ziurtagiri publiko” antzerako bat kontsumitzaileentzako eta tokiko eta nazioarteko erakundeetarako), munduko eskualde pobreenetan merkaturaren aritzeko forma alternatibo honen eragin positiboa begi bistan dago eta nazioarteko erakunde askok aintzat hartzen dute, esate baterako Europako Batzordeak eta Parlamentuak. WFTOren eta Fairtrade Internationalen ustez egun 1,2 milioi ekoizleak egiten dute lan irizpide justuak jarraituz, honek zuzenean edo zeharka Merkataritza Justuaren onura ateratzen duten 30 milioi pertsona inguruko zifra ematen digu, egun 5.000 milioi euro mugitzen dituen sektorea.

Datu hauek, Merkataritza Justua, batez ere eragile ekonomikoek garatutako gai ekonomikoa dela gogorarazi beharko ligukete. Erakunde, kooperatiba edo beste edozein motako formak izan arren, erakunde hauek jardura ekonomiko bat burutzen duten ekintzaile sozialak dira. Beraz, ez gara karitateaz hitz egiten ari, eta hauen helburua ez da merkatu-kuota areagotzea ere. Merkataritza Justua helburu handinahitsuago batekin jaio eta dihardu lanean: arau ekonomikoak eta portaera sozialak aldatzea justizia ekonomikoaren eta ekoizpen eta kontsumo eredu jasangarriago bat lortzeko. Beraz mugimenduaren ikuspuntu estrategikoa ez da produktua saltzera mugatzen (jardura honek lehentasuna izan arren, batez ere egungoa bezalako krisi garaietan, ekoizleen bizitza kalitatea, neurri handi batean, salmenta horien eboluzioaren menpe baitago), baizik eta gizartearen eta politika publikoaren kontsumo arduratsu jarraibideetan eragina izateko helburua du.

Konplexutasun honen ondorioa agerikoa da: Merkataritza Justua agertzen da eta egungo krisi ekonomikoari irtenbide alternatibo bat emateko kasu konkretu gisa erakusten du bere burua. “merkatuko arauen” alde lan, gizarte eta ingurune eskubideak sakrifikatzen ez dituen irtenbidea, hain zuzen ere. Gure Parlamentuetatik eta Erakundeetatik planteatzen ari den irtenbide alternatiboa.

Aitzitik, Merkataritza Justuak ongizate soziala defendatzeko eta merkaturaren lehiakortasun desleialak saihestera bideratutako irizpideak eta gizarte eta lan eskubideak erakusten ditu. Honek guztiak “krisi” hau bizi garen ekonomia eta merkatu errealtatea aldatzeko aukera konkretu eta erreala suposatzen du. Ezinezkoa? Duela gutxi UNCTADek (Merkataritzarako eta Garapenerako Nazio Batuen Konferentzia) oinarritzako produktuentzako prezio eskuragarriak bermatzeko arauak

hartzeko deia egin zuen soldatak, bizirauteko minimoaren azpitik jar lezaketen lehiakortasunak eta merkatu-dinamikak saihesteko. Hori da Merkataritza Justua!

Era berean, aldaketa klimatikoaren arazoak hor jarraitzen du, lehen baino txarrago, sistema ekonomiko honek aldaketa sakonak berehala burutu ezean, etorkizunik ez duela gogorarazten. Mundu mailan printzipio komunaren arau lotzaile multzoa garatzea eta aplikatzea bezala, “hobari eta zigor ekonomikoen” sistema, edo ekoizpen industrialaren eta nazioarteko merkataritzaren gainean “kontrol sozial” eraginkorra ezartzea. Nor da “errealista” eta nor “ameslaria”?

Batzuetan, badirudi mundua, gure munduak toki mailan zein orokorrean aldaezinak direla, inor ez duela behar besteko boterea ekonomia eta gizarte mailan gaizki dagoena zuzentzeko. Esku artean dugun urteko txosten hau, hau guztia horrela ez dela erakusteko modurik onena dela uste dut. Bertan egungo egoera aldatzeko egiten diren adibideak, aurre egin beharreko erronka handiak, hauei arrakastarekin aurre egiteko burututako ekimenak eta bai Merkataritza Justuan lan egiten dugunok bai mundu hobeago bat lortzeko borrokatzen duten pertsona guztientzako lortzeke ditugun zenbait helburu sartu ditugu.

Txosten honi esker munduko biztanleriaren beste alde horren ahotsak, beharrak eta itxaropenak gure egunerokotasunaren zati bat izan behar dutela gogorarazten dugu. Normalean distantziara ikusten dugun alde hori, migratzaile gisa, errefuxiatu gisa edo herrialde batetik bestera mugitzen diren pertsona gisa (eta askotan “gutarikoa ez den edonor”...). Neurri handi batean pobretutako eta ahotsik ez duten ekoizle eta langile txikiek irudikatzen dituzten pertsonak, Merkataritza Justuaren benetako oinarriak diren milaka erakundetan, baino hauen errealitatea ia ez da inoiz ikusten edo entzuten gure “lehen mundu” honetan.



Coordinadora Estatal de Comercio Justo  
C/ Santísima Trinidad, 30 1º 8 28010 Madrid  
91 299 38 60 [estudios@comerciojusto.org](mailto:estudios@comerciojusto.org)  
[www.comerciojusto.org](http://www.comerciojusto.org)